

balkeke

2005eko AZAROA,
138. ZENB. DOHAINIK

etorkizuneko
Zumaia



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Joanito Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Benat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola,

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

943 86 15 45 tel.

Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94


ISSN

1136-8594

Baleike ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
hemeroteka	6
puntocom	7
elkarrizketa iban iriondo	10
orain hamar urte	15
erreportaia zumaia 2005-2015 proiektua	16
gure zumai zarra jontxu altzibar eizagirre	22
kirolak joxe manuel balenziaga	26
kultura	29
jon maia arte zine forum	
agenda	34



kultura

jon maia

“Lehen helburua
finalean sartzea da,
behin hori lortzen badut
ikusiko dut beste
helbururik lor
dezakedan”

Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Erljioa(k) zakarrontzira? Ala espiritualtasun berri baten bila?

Azaroak 8, astelehen gaua. Neguaren atarian gaude. Aita-Mari zineman Afganistango film eder eta gogor bat: «A las cinco de la tarde». Irudi politak eta gogorak. Emakumea eta Islama. Tradizioa eta modernitatea. Sinesmena eta sufrimendua. Muturreko matxismoa eta fedea. Ama, aitona eta besoetako haur txiki bat. Fede handiko aitona zaharra. Kontraste handiak eta galdera batzuk: erlijioak zakarrontzira bota behar al ditugu? Dena txarra al da erlijioan, dena zabor? Ez ote dago gorde beharreko altxorrik?

Euskal Herrian, Afganistanen bezala, oso denbora laburrean, erlijioa desagertzen ari da gure bizitzetatik. Alde batetik, ondo, erlijioak zabor ugari dituelako berarekin: errepresioa, matxismoa, homosexual eta lesbien aurkako jarrera atzerakoia, botere militar eta politikoekin ezkondata egon izana, eta abar.

Hala eta guztiz ere, ez dut uste gizakiaren dimentsio espiritualari uko egin behar diogunik. Eta gero eta gehiago kezkatzen nau erlijioek utzitako hutsunak. Gainera, ez dut alternatiba garbirik ikusten. Kontsumismoak, telebistatik datorkigun zaborrak, azalera handiko merkatalguneek, sasi-erlijioek eta abarrek bete dute, neurri batean behintzat, erlijioak utzitako hutsunea.

Erljioa «birziklatu», gainditu edota hobetu beharrean, zaborretara botatzen ari garela iruditzen zait. Gizakion dimentsio garrantzitsu bat zaindu gabe geratzen ari da. Sinesmenaz eta barne sentimenduez hitz egiteak lotsa ematen digu. Lehen sexua bezala, orain erlijioa dugu tabu. Batez ere geure erlijioa kristaua baldin bada.

Ekialdeak yoga, zen meditazioa eta abar eskaintzen digu. Ameriketako indigenek «Ama Lurraren espiritualtasuna», Leonardo Boff brasildarrak duela gutxi Arantzazun gogorarazi zigun bezala. Zientziak, bestetik, esaten digu energia kosmikoaren zati ñimiñoak besterik ez garela gizakiok.

Noiz arte jarraituko dugu zaharra den guztia baztertzen? Hasiko ote gara altxorrek gordetzen? Edota Joxean Artze poetak dioskun bezala, ur berria edango dugu betiko iturri zaharretik, beti berria den ura, betiko iturri zaharretik?

Negua dator. Afganistanen bezala, Euskal Herrian ere hotz egingo du. Sua piztu nahiko nuke, bihotza berotu eta gozatuko duen sua. Ni ez nago altxorrik zakarrontzira botatzeko prest. Eta zu?



Joseba Ossa



Mota guztietako
altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI MOTOR

Santxo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

OXFORD, irakiten jarri dezakegun lapikoa



xa 2

Datozen urteetarako estrategikoa izango den erabakia hartu beharko da laster, Zumaiako kulturaren etorkizuna josiko duen erabakia izango da. Oxford eraikinarekin zer egin erabaki beharko da. Erabaki beharko dugu. Arrangoletarekin egin ez zena egiteko aukera dago Oxford eraikinarekin. Begirada

zaharrak albo batera utzi eta espazioa berriz interpretatu, beste zeregin batzuk eman, biziberritu. Kultur erabilerarako izango dela argi dugu denok, lau solairu zabal dituen etxeak joku asko eman dezake. Zein dira Zumaiak dituen beharrak? Batetik, Aita Mari antzokian egiten diren zinema ziklo eta antzerki emanaldien osagarri izango den espazio bat beharrezkoa da. Zine Forumak duen arrakasta txalogarria da, baita Udalak jarritako antzerki programazio oparoa ere (alderatu inguruko herrieekin, pribilegio bat!). Baina ez dago formatu txikiko antzerki lanak egiteko toki duinik. Kontzertuak gozatzeko (txiki ala handi, on ala erdipurdiko) Aitamari eta Maria eta Josek eserita egotera behartzen gaituzte, pena bat. Herri hau kafe antzoki bat eskatzen ari zaigu, zalantzarik gabe.

Bestetik, herriko kultur taldeek (daudenek eta

etorkizunean sortuko direnek) bilduta egoteko toki egokia behar dute, elkarren babesean txinparta berriak sortzeko, kultur sinergiak egon daitezen etxe handi horren sukaldean. Bakoitza bere aldetik, badakizue, bana itzazu eta irabaziko duzu. Era askotako ikastaroak emango diren gune batetatik, talde berriak erretzen dira. Kalakariak antzerki taldea holaxe jaio zen, lapikoa sutan baldin badago, su txikian bada ere, eltzekoa egosi egiten baita.

Itxi itzazue begiak momentu batez eta irudikatu. Zumaiako moilaren aurrean, herriaren erdian dagoen etxe handi hori hemendik urte gutxira. Azpian kafe antzokia dauka terrazatxo batekin udan, sartzera gonbidatzen gaitu barrutik datozen soinuak. Herriko artista gazte baten koadroak zintzilik daude tabernan eta zerbitzaria txakoliñak zerbitzen ari da sartu berri diren turistei. Taula gainean emakume bat gitarra jotzen ari da eserita, zutik mikrofono aurrean mutil batek bossa nova kantatzen du. Jendea zutik, eserita, mahaian berriketan. Goiko solairuan liburutegi, bideoteka, dvdteka izango da, etxera eraman ditzakegun aleekin (kontsultarakoak eta ikasteko mahaiak Forondan). Bilerak egiteko lokal bat ere badago bigarren solairuan. Hirugarenean berriz, ikastaroak emateko bi gela handi daude, tango ikastarokoak San Telmotarako ikuskizuna prestatzen dabilta. Laugarrenean kultur taldeen gelak, lehioa parez pare irekita. Itxas Gain ikusten da, arraunekoek duten eraikina, polikiroldegia ere oso-osorik kirolentarako dela gogoratu dute.

Kulturak ere behar du bere sukaldea eta Oxford irakiten jarri dezakegun lapikoa da.



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2

Tel. 943 143089



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620

Lucia Lakarraren saria zela eta...



Guztiok jakinaren gainean egongo zarete: Lucia Lakarrak Espainiako Dantza Saria irabazi du. Sari asko irabazi baditu ere (horien artean Nijinsky Saria, munduko emakumezko dantzariarik onenari 2002an emandakoa eta Dantzaren Benois Saria, 2003an Moskuko Bolshoin jaso zuena), Kultura Ministerioak emandako honek ilusio handia egin omen dio. "Ez nekien ezer, ezustekoa izan da, ohore handia". Horiek izan ziren Luciak esandako lehenengo hitzak albistearen berri izatean.

Albisteak oihartzun handia izan zuen Euskal Herriko eta Estatuko komunikabideetan. "La Nueva España", "Diario de Cádiz", "La Razón", "Diari de Tarragona", "El Norte de Castilla" eta ia beste 50 egunkaritan argitaratu zuten albistea. Ia denek EFE agenciak bidalitako prentsa oharra argitaratu zuten (akats nabarmen bat zuena, zumaiarrontzat, behintzat, Luciak jaioterri duen Zumaia Donostiaren barnean kokatzen baitzuen), baina komunikabide batzuek beraien estilo propioa jarri nahi izioten. Hori da, hain zuzen ere, "ABC" egunkariaren kasua. Albistea jorratzeko orduan, ezin beraiek hain maite duten espagnolismoa alde batera utzi: Luciari eskaintzen zaion paragrafoan lau aldiz agertzen dira Espainiari buruzko erreferentziak.

Garrantzi handia eman diote, halaber, Euskal Herriko egunkariak. Denetan eman zen albistearen berri, baina El Diario Vasco egunkaria izan zen saria eman zuten egunean bertan dantzaria elkarrizketatu zuen bakarretakoa. Lucia Lakarrak zioenez, "Zure lanagatik halako esker ona

jasotzeak asko balio du. Dantzaria izanda, ikusle-en maitasuna jasotzea espero duzu, baina beste arlo batzuetatik baldin badator hunkigarria da eta egiten duzunari zentzua ematen dio. Jende askok uste du dantza denbora pasa edo zaletasuna dela, baina oso lan serioa da, lanbide bat, eta bere-

gatik gure bizitza ematen dugu".

Sariak jardunean daudenean ematearen aldeko azaltzen zen Lucia Lakarra elkarrizketan. "Idazle, musikari, zientzialari edo filosofoekin alderatuta, dantzariok oso lanbide laburra dugu. 60 urte ditugunean sariak ez digute ezertariko balio. Jardunean zaudenean eman behar dira sariak. Erretiratuta dagoen dantzari bat saritzeak ez du zentzurik", zioen Luciak.

Lehen urteak oso gogorak izan zirela azaltzen zuen dantzari zumaiarrek: "Dantza munduan ez du garrantzirik konpainia bat herri batean edo bestean egoteak. Etxetik kanpo bizitzea oso gaztetatik ohitu nintzen. Niretzat etxetik joatea erbestera joatea izan zen. Marseillan, San Frantziskon edo Munichen egotea ez da hain gogorra izan. Lehen pausoa ematea izan zen zailena, zerbait lortuko nuen jakin gabe etxea eta familia uztea".

dekorazioa

ALBERDI


696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Induristegunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAVITZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

- Jardinen diseinu ... mantenimendua
- Nekazaritza zerbitzuak
- Kiral zelaien mantenimendua
- Txostenak ... aholkularitza teknikoak
- Balaztioak

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760

Arantza Aramendi
EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

Gaztetzola/Gaztetxea

INKESTA

Gaztetzola Oxforden jartzea egoki iruditzen zitzaizuen galdetu eta berehala hainbat bisitari gaztek bidali zituzten beraien mezuak azalduaz Gaztetzolara inor ez dela joaten eta horren ordez Gaztetxe bat behar dela herrian. Atzetik zenbait erantzun etorri ziren gaztetzeta eskatu aurretik funtzionamendu bat egon behar duela adieraziz. Eskaerak egiteaz gain, badirudi herriko gazteak mugitzen hasi direla eta lehen bilerak egitekotan daude. Hemen alboan Gaztetzolari buruzko galderaren emaitzak ikus ditzakezue, eta azpian zenbait iritzi.



IRITZI BATZUK

Xugri 2005/10/27 - 02:45 PM

Gaztetzola bere lekuan ondo dagoela iruditzen zait eta Oxfordi beste erabilera batzuk eman beharko litzaizkioke. Bileran egin zen eta proposamenak aurkeztu ziren, ez dut uste gaztetzolarena bat izan zenik. Kontuan hartu behar al dituzte Oxforden erabilerarako egin ziren proposamenak?

Bestealde, gaztetzolaren ideiarekin beriz ere, lehenik gaztetzolaren beharra zortu behar da. Begira adibidez Zarautzen egin dutena, beharra zortu dute, eskubideak antolatuz nahiz eta lekuk ez aduki eta ondorioz eskubideak kalean aurrera eramanez. Herriaren ordea akitutasuna behar da eta gauzak egiteko gogoa edukitzea eta Zumaian ez da horrelakorik sartzen. Benetan gaztetzeta bat nahi duenak badaki zer egin behar duen, beharra zortu, eskubideak antolatu, eta ea herria zenbait ezarrez lortzen den.

Torkuato 2005/10/28 - 08:42 AM

Ni erabat konforme Xugriekin. Paretaekin bakarrak ez degu ezer egiten, edukiz eta dinamikaz beste beharra dago. Gero eta komodoago bihurtu gero eta dana agindua ematea nahi degu. Baten batek apatu zun uratekia utziltzen ari zala... Gogoa dakanak, okupa kopan!!

Irrijas 2005/10/28 - 04:38 PM

Galdera beste bat da: gaztetzola egokia iruditzen? Zein jutes gaztetzola?

Beste aukerarik ematen ez duenez, okupazioa da ikurtean bide bakarra, hortako gazteak juntatu ta ondo antolatu bihar gea, urutokiya toki ona da. Baina konbentzita okupatu behar du pk besteala auzenekuan kalea. Al ta Ametzenea auzera!!!

Baote 2005/10/29 - 12:00 PM

Gaztetzolan beharrik ez dakugula usteko dute batzuek, baina erabidazu Zumaiko zein gazteek ez duen nahi gaztetzeta bat non asteburuko kontzertuak dauden, tabernetan usteltzeaz gain bertako eskintzetan parte hartzeko aukera izango dugun, eta ametzaldeak paratzeko beste leku eta aukera bat dugun. Gainera gaztetzolara joan nahi ez duenak ez joatea berterik ez duff! Ez dio inori kalterik egiten! Batzutan Zumaiko gazteak baxterluta gaudela iruditzen zait! Egiaio gaztetzeta auzera!

exhangie 2005/10/29 - 03:15 PM

Ni hurrekin ados "baote" erabat gainera.

INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

D'Ana
Floresandegia

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

AIZPURUA
LIBRERIA

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era funtzionaltako instalazioak etxebizitzan, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Emilio Perez
Elektrikaria, instalazio eta instalazio
elektrikoen zainketa eta konposaketa

ADI

BASADI 2B
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 635 157
E-mail: adiele@euskalnet.net

TOKIKO AGENDA 21



UROLA KOSTA IRUDIETAN ARGAZKI LEHIAKETA



Beste urte bat ez, eta bigarenez jarraian, Urola Kostako Udaltalde Zilek (Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia) argazki-lehiaketa bat antolatuko du. Helburua Tokiko Agenda 21 eta Garapen Iraunkorra (ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren garapen orekatua) eza gutaraztea da. Iaz egindakoaren arakastakontuan hartuz, Udaltaldeak argazkiak 2006ko egutegia egiteko erabiliko ditu, eta baita Agenda 21arekin lotutako bestelako promozio eta hedapen jardueretan. Joan den urteko lehiaketaren irabazlea Luis Fco Llavori zumaia irabazlea izan zen. Oraingo honetan, 2006ko egutegia eskualdearen garapen iraunkorra lortze aldera guztion parte hartzea eskatzen duten eguneroko keinuetan zentratuko da.

Lehiaketara aurkeztutako argazki onenari 120 €-ko lehen saria emango zaio, baita 100 €-ko 9 sari ere, udalerri bakoitzean egindako argazki onenari eta orijinaltasun maila handiena aurkeztu dutenari hain zuzen.

Lanak Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaiko Udaltaldeko idazkaritzetan aurkeztu ahal izango dira edota Urola Kostako Udal Elkartean bertan (Zumalakarregi 16 -1- Zarautz) eta azaroaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira. Sariak aberduan emango dira.

Lehiaketa parte hartu nahi duten zaletu orori zuzendua dago eta aurten proposatzen den gaia ondokoa da: "Ingurumen-

praktika onak". Honrela, mugikortasuna, herriaren parte hartzea, ura, energia, hondakinak, kontsumoa, natur baliabideak... jorratu ahal izango dira.

Argazkiak eskualdeko eremura mugatu beharko dute, hau da, bera osatzen duten herrietara: Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.

Lehiaketaren oinarri guztiak eskuratu nahi dituenak udaletxean, kultur etxean, edo www.urolakosta.org web orrian eskura ditzake

INFORMAZIO GEHIAGO:
Tel.: 943 89 00 45
www.urolakosta.org
agenda 21@urolakosta.org

H o r t z k l i n i k a

MOZÈS HIRIART eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiari gabe)
- * Endodontzia
- * Inplantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hartz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

Itziar Mora izango da Baleikeko koordinatzaile berria

Urrian hainbat iragarkiren bitartez deialdia egin eta gero, koordinatzaile posturako interesa zuten 22 laguneren curriculumak jaso ziren, gehienak kanpoko jendearenak. Guztien artetik 6 aukeratu eta hilaren 5ean egin zen hautaketa proba, idatzizko azterketa batez eta elkarrizketez osatua. Curriculumak, azterketa eta elkarrizketa kontuan hartuta, Baleike kultur elkarteko arduradunok Itziar Mora hautatu genuen.

Itziar abenduaren 1etik aurrera hasiko da koordinatzaile lanetan, egun erdiko lanaldiarekin, eta aldezkariko lanak koordinatzeaz gain, web gunea elikatzea eta kultur elkar-teraren ekintzak antolatzea ere izango ditu eginkizunen artean. Hainbat urtez herriko euskalgintzan aritua da Itziar, AEKn irakasle eta koordinatzaile gehienbat, eta azken urteotan itzultzaile jardun izan du batez ere.

Eskerrak eman nahi dizkiegu deialdi honetan parte hartu duten guztiei, bereziki eskertu nahi diogu Juan Luis Romateti azken urte eta erdian koordinazioan egin duen lana eta Itziar Morari ere lantegi berrian dena ondo joatea opa diogu.



Itziar Mora, koordinatzaile berria eta Roberto Gutierrez, maketatzailea.

ZOZKETA!!

Baleikeren 10 agenda zozketatuko ditugu bazkideen artean. Agenda hauetako bat eskuratu nahi baduzu bidali mezu bat elkartea@baleike.com helbidera azaroaren 30a baino lehen. Bertan izen-abizenak eta telefono zenbakia ipini.

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



"Badakit nolako bizimodua eramaten duten profesionalek, baina ez nuke ezergatik aldatuko"

Txikitatik izan duen ametsa lortu berri du Ibanek 21 urterekin. Euskaltel-Euskadi taldeari esker eta hainbat urtetan egin duen lan onaren ondorioz, profesionaletara igotzea lortu du.

IZASKUN URBIETA

Pozez eta ilusioz beterik azaldu zaigu Iban. Hona hemen zer kontatu digun.

Noiz eta nola hasi zinen txirrindularitzan?

Lehiatzen alebinetan hasi nintzen. Hala ere, txikitatik ibiltzen nintzen mountain-biken hemen inguruko mendi-irteerak egiten. Aita zikloturista ibiltzen zen eta, gainera, gurasoen tabernan beti zikloturista asko geratzen ziren hamaiketakoak jaten; mugimendu handia zegoen, beraz. Egun batean aitarekin eta beste zikloturista batzuekin irteera bururatu zitzaidan probatzeko, eta gustatu egin zitzaidan. Gero Zumaiako klubean izena eman nuen eta alebinetan hasi nintzen serioago hartzen eta lehiatzen.

Zein taldetan ibili zara Euskaltel-Euskadira iritsi arte?

Alebin eta infantiletan Zumaiako Txirrindulari Elkartearen ibili nintzen. Kadete eta jubenetan, Ciclos Beristainen. Swiss Flex taldean ere korritu nuen jubenetako lehen eta bigarren urtean.

Ondoren, amateurretan, eskaintza asko izan arren, Oñatiko talde batera joan nintzen, Ulma Cegasara. Gipuzkoako federazioak lege bat atera zuen, esanez amateurretako lehenengo urtean gipuzkoarrek Gipuzkoako talde batean geratu behar zutela. Orduan, ni talde honetan ibili nintzen urtebetez.



Gero, Orbea Olarra Consultec taldera pasa nintzen. Ekipo bizkaitarra da, Euskadi mailan nahiko ezaguna. Talde honetan ere urtebete egon nintzen.

Azkenik Seguros Bilbaon egon naiz. Amateurretako azken urtea egin dut hor. Orbea Olarra Consultec taldea desagertu egin zen. Horren ondorioz, zuzendaritza eta entrenatzaile berberak Seguros Bilbao sortu zuten. Gehienak gazteak izan gara eta ni gipuzkoar bakarra. Talde horretatik Unai Uribarri eta ni pasa gara Euskaltel-Euskadira.



Noiz hasi eta amaitu duzu denboraldia? Zenbat lasterketatan hartu duzu parte?

Martxoko lehenengo astean hasi nintzen eta irailaren 18an bukatu nuen. Profesionalen denboraldia pixka bat lehenago hasten da, Mallorkan, otsaila inguruan, eta bukatu urrian.

Amateurretan 40-50 lasterketa izaten ditugu urte gutxian. Asteburuero bat edo asko jota bi. Udaran gehiago edukitzen ditugu, astegunetan ere bai askotan, festaz festa ibiltzen gara eta.

Lasterketek gain, Birak ere izaten ditugu. Aurten bostetan hartu dut parte: Valladolid, Bidasoa, Bizkaiko Bira, Toledo eta Salamancan.

Orain arte egindako lanarekin gustura al zaude?

Bai, progresio ona izan dut. Gainera azken hiru urte hauek ingeniarietako ikasketekin batera eraman behar izan dut. Maila oso altua ez dut eman, baina ikasketekin batera eramateko nahiko ondo ibili naiz.

Amateurretako lehenengo bi urteetan (19-20 urte) "Lehendakari Torneoa" jokatu da. Maila horretan nahiko gustura ibili nintzen. Karrera batzuk irabazi nituen eta bestela beti postu onak lortzen nituen. Azken

urte hau zailagoa izan da, beti ni baino zaharragoekin korritzen nuelako.

Zein izan da gehien gogoratzen duzun garaipena?

Aurten irabazi nuen lehenengo lasterketa. Denboraldiko bigarren karrera zen. Astilleron jokatu nuen. Helmugara bakarrik iritsi nintzen eta ez nuen uste denboraldi hasieran hain ondo ibiltzea. Ilusio handia egin zidan.

Euskaltel-Euskadik bi denboralditarako fitxatu zaitu.

Inoiz pentsatu al zenuen profesionalentzako igotzea? Nola hartu zenuen berria?

Profesionalentzako pasatzean derri gorrezkoa izaten da bi urtetarako kontratua egitea. Egia esan, hasi nintzenetik neukan ilusioa profesionalentzako iristeko, beti buruan nuen. Nire ametsa zen, baina inoiz ez duzu uste benetan iritsiko zenik.

Hasieran disfrutatzeagatik eta ondo pasatzeko egiten nuen.

"Maila oso altua ez dut eman, baina ikasketekin batera eramateko nahiko ondo ibili naiz"



Palmaresa

- **Alebinetan:** 6 lasterketatik 4 irabazi eta 2tan erori
- **Infantiletan (lehenengo urtean):** lasterketa 1 irabazi
(bigarren urtean): 3 lasterketa irabazi
- **Kadetetan (lehenengo urtean):** ez zuen batere irabazi
bigarren urtean): 10 lasterketa + Espainiako Txapelketa irabazi
- **Jubeniletan (lehenengo urtean):** 6 lasterketa irabazi
(bigarren urtean): 13 lasterketa irabazi
- **Amateurretan (lehenengo urtean):** Markinako lasterketa irabazi + Hasiberrien torneo irabazi + Lehendakari Torneoan hirugarren
(bigarren urtean): Beasaingo lasterketa irabazi + Lehendakari Torneoan bigarren
(hirugarren urtean): Astilleron lasterketa irabazi + Gipuzkoako 23 urtez azpiko Txapelketa irabazi + Euskadiko 23 urtez azpiko Txapelketan bigarren + Toledoko Biran seigarren

"Azkeneko hilabeteak urduri pasa nituen, pentsatzen ea igoko ninduten edo ez"

Baina amateurretan ordu asko sartu behar dira, eta ez da broma izaten. Beti asmo horrekin egoten zara, ea igotzen zaituzten eta ea horretatik bizitzeko aukera duzun... Horrela bada ondo; bestela, lanera!

Berria oso pozik hartu nuen. Abuztu inguruan egunkarietan argitaratzen

hasi ziren 23 urtez azpiko bi txirrindulari igoko zituztela. Ilusioa egiten joan nintzen eta azkenean konfirmatu egin zidaten. Hala ere, azkeneko hilabeteak urduri pasa nituen, pentsatzen ea igoko ninduten edo ez. Azkenean baieztatu zidaten eta oso pozik nago.

Zein helburu dituzu hemendik aurrera?

Kilometroak ahalik eta azkarren egitea. Erritmo handia izango dut. Pixkanaka-pixkanaka, pazientziarekin hartu, aldaketa oso handia izango baita.

Besteentzako lana egingo dut ziurrenik, gazteok hori egiten baitugu. Taldearen liderrarentzat lan egin eta lagundu. Ikasteko ere hori da biderik onena.

Beti esan da txirrindularitza kirol gogorra dela. Orain gehiago izango da, ezta? Nola eta zenbat entrenatzen duzu?

Bai, orain gogorragoa izango da, noski, baina mentalizatuta nago. Honetaz bakarrik arduratuko naiz, eta, beraz, egun guztia izango dut bizikletan ibiltzeko, eta atsedean hartzeko ere denbora gehiago.

Azaroan denboraldia prestatzen hasten naiz pixkanaka. Mendi buelta batzuk egin, paletara jokatzera joan... Hau da, bizikletaz aparteko beste gauza batzuk egiten. Hala ere, astean hiru aldiz gutxi gorabehera bizikletan ibiltzen naiz. Abenduan pisuak egin eta gimnasia joaten hasten naiz, bizikletarekin batera lan egiteko. Urtarrilean eta otsailean ordu askoko entrenamenduak egiten ditut. Martxoan, berriz, denboraldiarekin batera, serieak egiten ditut, hau da, intentsitate eta indar askoko entrenamendu motzak.

Gustura al daude familia eta lagunak?

Bai, beraiek ere ez zuten espero. Oraindik gaztea nahiz eta amateurretan hiru urte besterik ez dut egin. Denak ilusioz beterik daude, bai lagunak, baita familia ere.



Lasai hartzeko esaten didate, pixkanaka joateko, aldaketa handia izango da eta.

Ingeniaritza industrialeko ikasketak amaitu dituzu. Nola eraman duzu aldi berean ikastea eta entrenatzea?

Atseden gutxi hartuz eta siesta gutxi eginez. Amateurretan pelotoi erdiak baino gehiagok ziklo bat eginda izaten dute, eta hori 2 urtetan egin eta gero, bizikletan bakarrik ibiltzen dira. Nik, berriz, entrenatu eta gero klasera joan beharra izaten nuen. Baina merezi izan du, etorkizunera ere hortxe daukat karrera bukatuta.

Zein da zure idoloa? Zergatik?

Txikitatik Jalabert izan da beti nire idoloa, baina orain, aktibo daudenetatik, Vinokurov Kazakhstandarra da nire faboritoa. Kastako pertsona da. Gaitasunez ez da Amstrong adinakoa, baina egoskorra da eta segi eta segi egiten du garaipenak lortu arte. Aurtengo Tour-ean 2 etapa irabazi ditu eta azkena, beti esprintean amaitzen dena normalean, berak irabazi zuen. Harrituta utzi ninduen.

Zer iruditzen zaizu Pro-Tour sistema?

Guri, gazteoi, ondo etorri zaigu. Pro-Tour ligan 20 talde daude eta horietako bat Euskaltel-Euskadi da. Talde horiek lege bat aplikatzen zaie, esaten duena ekipa bakoitzak gutxienez 25 txirrindulari eta gehienez 28 izan behar dituela. Gehiago izan nahi badituzte, horiek 23 urtez azpikoak izan behar dute. Lehengo urtean bat fitxatu zuten, baina lasterketa guztietara ez ziren ondo iristen eta, orduan, aurten Uribarri eta ni igo gaituzte. Beraz, ondo

etorri zaigu sistema; bestela, oso zaila izango genuen hain azkar profesioaletara igotzea.

Baina talde batzuentzat kaltegarria da. Adibidez, Kaikuk aurten denboraldi ikaragarria egin du. Espainiako Biran Pro-Tourreko taldeez gain, 2 ekipok izan dute aukera parte hartzeko. Talde horiek Kelme eta Relax izan dira. Kaiku kanpoan utzi zuten. Baina ni seguru nago irteeta izan balu beste bi taldeak baino hobeto ibiliko zela.

Bestalde, telebista lasterketa garrantzitsuenetara besterik ez da joaten. Euskal Bira ez dago Pro-Tourrean; horren ondorioz, Pro-Tourreko 3 taldek bakarrik korritu zuten aurten. Ikuskizun aldetik nabarmen jaitsi da, beraz. Azkenean, telebistak ere karrera horietara ez dira joango eta desagertu egingo dira, talde batzuk bezala.

Zer gertatuko da Euskaltelen etorkizunarekin 2006ko abenduan?

Euskaltel telefono enpresak kontratua 2006ko abendura arte

"Lasai hartzeko esan didate familiak eta lagunek, pixkanaka joateko, aldaketa handia izango da eta"

du. Baina taldeak ez du dirua hortik bakarrik ateratzen. Eusko Jaurlaritzatik, diputazioetatik... ere jasotzen du. Azken horiek kontratua 2008. urtera arte dute.

Orain, kontratua luzatuko duten ala ez negoziatzen ari dira. Azkenean, kontratuak ez badu jarraipenik, taldea ez da bukatuko.

Euskaltelen kontratua izango da amaituko dena.

Euskal selekzioarekin eta Espainiakoarekin korritu duzu. Zeintzuk izan dira garaipenak?

Kadeteetan hasi nintzen Euskal selekzioarekin korritzen eta Espainiako Txapelketa irabazi nuen.

Jubeniletan bi selekzioetan ibili nintzen. Euskadikoarekin ia Espainia guztia ezagutu nuen egun bakarreko lasterketa askotan parte hartuta. Espainiakoarekin, Italiako 4 eguneko bira batean egon nintzen. Nahiko ondo ibili nintzen bertan.

Ondoren, Belgikan mundiala korritzeko aukera eman zidaten. Lasterketa oso laua zen, esprinterrentzat egokia. Ihesaldi bat harrapatu nuen eta lehenengo 15 korrikalarien artean jarri nintzen. Ni bakarrik nintzen selekziokoa. Helmugarako buelta erdi falta zenean, ordea, erori egin nintzen.

Zer iritzi duzu dopin-garen inguruan? Amateurretan arazo asko ekarri al ditu?

Amateurretan ere asko omen dago. Kontrolak oso garestiak dira eta antolatzaileek ez daukate behar adina diru. Nik, adibidez, aurten ez dut kontrolik pasa. Lehengo urtean pare bat pasa nituen, hala ere. Normalean, irabazten duenari egiten dizkiote.

Nire ustez, doping asko dago txirrindularitzan, baina ez beste kiroleetan baino gehiago. Gertatzen dena da txirrindularitzari ematen diela garrantzi gehien, batez ere profesionaletan. Askori etxea eta guzti miatzen diete.



"Saltoa eman dut, esaten dute hori dela zailena, eta horrenbestez 30-32 urte inguru arte bizikletatik bizitzea nahiko nuke"

Egon naizen talde guztietan oso gustura ibili naiz, giro ona eta ederki pasatzen genuen.

Nola ikusten duzu zure etorkizuna?

Espero dut ahal ditudan urte gehienak igarotzea profesionaletan. Saltoa eman dut, esaten dute hori dela zailena, eta horrenbestez 30-32 urte inguru arte bizikletatik bizitzea nahiko nuke. Hau da, profesionaletan egon gustatzen zaidana eginez.

Badakit fisikoa eta janaria zaindu egin behar ditudala, baita parrandak ahaztu ere, baina bizitza hau gustatzen zait eta beste ezer baino gehiago nahi dut. Denarekin nago konforme eta gustatzen zait profesionalek eramaten duten bizimodua.

Bukatzeko eskerrak eman nahiko nizkieke txikitatik lagundu eta niregatik asko sakrifikatu diren pertsona batzuei. Alebin eta infantil nintzenean, hor egon zen beti Patxi Ortiz; kadete eta jubenetan, berriz, Valentin Agirre eta Juanito Gómez.

Eskerrak hiruroi, oso ondo portatu zarete nirekin.

Baleiketik zorterik onena eta animorik handiena bidaltzen dizkiogu Ibani. Ea karrera oparoa eta arrakastatsua izaten

Lehia ikaragarria da, baina lagunak izango dituzu, ezta?

Talde guztietan egin ditut lagun onak. Talde berri batera joan naizenean, zerotik hasi behar izan dut, baina azkar egin ditut lagunak. Gainera, komeni izaten da lagunak egitea askotan berarentzat "tiratu" behar izaten delako edo alderantziz.

<p>Alberdi <i>Gizonetzkoen moda</i></p>  <p>Erribera kalea, 6 Tel. 861155</p>	<p>GANBARA Taberna</p> <p>juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57</p>	<p>7 MARES</p> <p>Arrain eta mariskoak</p> <p>Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak</p> <p>Zuloaga plaza, 1 Tel. 943862309</p>	
<p>Karmengo Ama, 14 E-20749 Airra (Gipuzkoa) Tel/Fax: +34 943 14 83 06 e-mail: bakun@euskalnet.net</p>	<p>finés french euskara englantiar espagnol catalonian suomi basc catalá finnois francés anglés catalán français castellano finnish inglés baski catalán</p> <p>Bakun ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.</p>	 <p>ALGORRI TABERNA ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA 943 862543</p>	<p>ad</p> <p>AUTOS ZUMAIA</p> <p>Urola plaza 3-5 Tel: 943 86 14 85</p>

Aldaketaren beharra



joateko zeuden komunikabide exkakak zirela eta, damu zen Baleikeko kazetaria. Bidepresa eta herriz herri pasatzen zen autobusa kenduta, Bilbora joatea abentura bihurtzen zen. Treneko bidaiaren iraupena berbera bada ere (bi ordu luze 80 kilometro egiteko!), uste dugu egoerak okerrera egin duela; izan ere, oraingo trenak komunik ere ez dute.



Gaia aldatuta, Manuel Bastias egindako elkarrizketarekin egingo dugu topo. Jubilatutxo honen dohain berezi bat zuen: herpea sendatzeko gai zen. Horretarako, nahikoa zuen erramua, ur bedeinkatua eta otoiak egitea. Gaixoak bederatzigun jarraian joan behar izaten zuen sendatzera. Bastiasek zioenez, "Etorri izan dira ia zazpi urtez gaitzarekin egon direnak eta horiek hiru edo lau saiotan sendatu ditut. Baina beti sendatzen dira".

"Alkohola gaixotasun bihurtzen denean". Hori zen 18. zenbakiko erreportajearen izenburua. Alkoholarekin arazoak zituen edonori laguntza ematen zioten taldeek egiten zuten lanaren berri ematen zen artikulu hartan. Hiru talde dira azaro honetaz arduratzen direnak: Alkoholiko Anonimoak (alkoholikoek beraiek osatzen duten taldea), Al-Anon (alkoholikoek senitartekoei edo lagun minek osatzen duten taldea) eta Al-Ateen (alkoholikoek seme-alabek osatzen dutena). Inongo sekta edo erlijiorik loturirik gabeak, taldekideek programa bati jarraitzen diote alkoholikoari ahal den neurrian laguntzeko. Arazorik gogorrena norberak gaixotasun hori onartzea zela zioten: "Nahi duzunean edaten duzula pentsatzen duzu, baina ez da horrela. Eta alkoholiko bat ez da lurtean mozkorra dagoen hori bakarrik".

Gaia aldatuta, "Zumaia moral kutre-hipokrita" hautsi zuen zenbaki bakarreko aldizkaria ekartzen dugu orrialde honetara. Komiki lizunak, istorio berdeak eta Amaia plazan girotutako ipuin erotiko batek osatzen zuten "Muxubeltza" aldizkaria. "Zer esan daiteke Muxubeltzaz?", galdetzen zuen kazetariak. "Batez ere, ideiak zabaltzera eginiko gonbidapen soil bat baino gehiago dela. Oraindik ere horrelako asko behar direla Zumaian? Noski! Bada ordua sexua gauza normal bat bezala hartzen hasteko, herriko gazteok gutxienez, Muxubeltz gehiagoren beharrik izan ez dadin". Amen.

Gauzak uste baino azkarrago aldatzen dira. Gogoratzen al duzue orain dela ez hainbeste derrigorrezko soldaduska zegoela eta bere burua intsumisotzat jotzen zuena epaitu egiten zutela? Ba, hori gertatu zitzaion Iñaki Etxaniz 1995eko udazkenean, intsumiso iza-teagatik epaitu baitzuten. Epaiketa motza izan zen, bost minutu besterik ez. Nahikoa epaileak erabakia hartzeko: bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra. Denborak gauzak bere lekuan jartzen ditu eta derrigorrezko soldaduska bezalako anakronismoak oroitzapenak besterik ez dira. Norbaiti berreskuratzea okurrizten zaion arte, noski.

Badira denborak aldatzen ez dituen gauzak, ordea. Bilbora

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatu

Juaristi
JATETXEA



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

"Zumaia 2005-2015: Etorkizuneko herria"

Asko aldatu da Zumaia azken urte hauetan, onerako eta txarrerako, baina zer nolakoa izango da herria 2015. urtean? Zein itxura izango du? Horren inguruan, "Zumaia 2005-2015" proiektua aurkeztu zuen Udaleko

Hirigintza Sailak. Proiektua Oxford aretoan erakutsi zen eta orain hemen jasotzen dugu. Etorkizun hurbil batean egingo diren lanei buruz hitz egin dugu Jone Kalzakorta Udal arkitektoarekin.

JUAN LUIS ROMATET

Aurkeztutako proiektuko lanak gauzatzeko badira, aldaketa handiak izango ditugu herrian. 2015. urteko Eusebio Gurrutxaga enparantzak ez du oraingoaren antza handirik izango, ezta Txomin Agirre kaiak ere. Saihesbidea egiteak herrira sartzen den trafikoa gutxitzea ekarriko du, eta horrek Patxita Etxezarreta kalea eta Axular Ibiltozia eraldatzeko aukera emango du. Aita Mari auzategiko sarrera aldatzea ere iragartzen da proiektuan.

Jone Kalzakorta eta Luxiano Pagaei arkitektoak dira aurreproiektu honen egileak. Odieta kaleko berritze lanek eta saihesbidearen obrek (2008. urterako bukatuta egon beharko dutenak) eragingo duten bultzada aprobe txatu dute hirigintza proiektu handi hau diseinatzeko. Paisaia eta ingurumenari garrantzia eman nahi izan diotela azpimarratzen du Kalzakortak.

Helburuen artean parke eta enparantzak handitzea eta ibaien erriberak berreskuratzea daude. Herrigunera sartzen diren autoen kopurua jaisteko neurriak ere jasotzen ditu proiektuak. Ikus ditzagun banan-banan aldaketak.

Odieta kalea eta Eusebio Gurrutxaga enparantza


Bi gune hauek izango dira gehien aldatuko direnak. Zona degradatutzat jotzen da Odieta kalea. Proiektuak jasotzen duenez, kale horretako base-ri zaharkitua eta zenbait etxe botako dira (11 etxebizitza guztira) eta 24 etxebizitza berri egingo dira. Odieta pilotalekuaren atzealdean dagoen Torreberri ere guztiz berrituko da. Ahal izanez gero, porlan azpian gordeta dauden bertako harriak erabiliko dira, baina ziur aski beste material batzuk ere erabili beharko dira. Oraindik ez dago ziur zertarako erabiliko duten

Torreberri "berria", baina litekeena da Ludoteka bertan egokitzea.

Odieta pilotalekuari dagokionez, teilatua eta eskuinaldeko ekipamendu guztiak (eserlekuak, aldagelak eta taberna) botako dira eta frontisa eta ezker horma zutik mantenduko dira. Azken hori jatorrizko neurri itzuliko da, hau da, oraingoa baino hiruzpalau koadro motzagoa izango da. Atzealdean, orain frontoi txikia dagoen lekuan, 220 metro karratu izango dituen teila-tudun espazio bat egokitzeko asmoa dago, euria egiten duenean aterpe moduan erabiltzeko.

Aurreproiektuaren arabera, plaza handi bat egingo da Eusebio Gurrutxaga eta Ignacio Zuloaga enparantzak elkartzuta. Horren azpian, 280 autorentzako lekua izango duen lur azpiko aparkalekua egingo da. Horietatik erdiak, 140, salgai jarriko dira. Kioskoa ere lekuz aldatuko da,





Eusebio Gurrutxaga enparantzaren azpiko aparkalekuak. Azpian, institutuaren alboan egingo den frontoi luzea.



jendeak ahalik eta leku gutzientatik ikuspegia izan dezan eta inguruan zenbait barrera akustiko egokitu lirateke.

Jabeekin akordio batera heltzen badira, Batzoki zaharra izandako Zelaiaren etxea berritu nahi da zehaztu gabeko erabilera publikoa emateko. Forondara igoera errazteko igogailua jarriko da Zelaiaren etxetik. Enparan-

tzaren beste aldean beste igogailu batzuk jartzeko asmoa ere badago, enparantza berria San Jose kalea eta San Juan egoitzarekin lotzeko.

Eraberritze lanetarako Eusko Jaurlaritzaren Izartu II programako diru laguntza jasoko da eta lanek 2008aren amaiera baino lehen bukatuta egon beharko dute. Lan hauek Zumaia Lantzenen bidez egingo dira.

Alde zaharra

Zumaiaiko Alde Zaharra oinezkoentzako izatea bultzatzen da. Alde Zaharrera igotzen diren autoak Bonifazio Etxegarai kaletik igoko dira, trafikoaren noranzkoa aldatuta. Autoak mojarren komentua eta alboko etxe artean dagoen pasabide batetik (orain horma batez estalita dagoena) komentuko baratzaren parean kokatuko den aparkaleku batera iritsiko dira. Neurri horiekin, Alde Zaharrean ibiltzen den auto kopurua jaitxi daitekeela uste du Jone Kalzakorta arkitektoak.

Trafikoaren gaiari lotuta, hiriguneko sarrera ere aldatzen da, Zubitxiki parean biribilgune bat egingo baita. Horrela sarrerak erraztea espero dute. Biribilgunea egiteak leku horretan dagoen gasolindegia lekuz aldatzea ekarriko du. Ziur ez dakite, baina litekeena da gasolindegia oraingo kokapenetik hurbil izatea, fielatoa eta Udaltzaingoa enparantza alboan.

SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturalista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

Arkupe

Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Txomin Agirre kaia. Aparkalekuak kendu eta pasealekua bihurtuko da




Eusebio Gurrutxaga eta Ignacio Zuloaga enparantzek bat egingo dute. Lurazpiko aparkalekuak ere egingo dira.


2015 u



Axular ibiltokiko espaloiak zabaldu egingo dira eta Narrondo ibaia zeharkatzeko zubi berri bat egingo da.



urterako egin nahi diren zenbait lan



Beheko plazaren itxura berria. Odieta frontoia irekia izango da, Torreberri berreraiki eta Zelaia etxea eta Foronda artean pasabide bat egingo da

Txomin Agirre kaia

Zubitxikia eta arranpla arteko bidea erabat aldatuko da. Beste herrietan egin omen den bezala, ibaiertza edo erribera errekupeartzea da asmoa. Ibaiertza pasealeku bihurtzea du Udalak helburu. Horretarako, Txomin Agirre kaian dauden 150 aparkalekuak kenduko dira eta errepidea estutu egingo da. Oinezkoen zubia (anbulatoriokoa) eta Zubitxikiaren artean dagoen espaloia zabaldu egingo da, bide guztian zuhaitzak landatuko dira eta tartean eserlekuak ere jarriko dira. Bidegorria ere egingo da Zubitxikia eta Amaia plaza artean. Enparantza horretako espaloiak zabaldu egingo dira, bai Ardantzabide aldeara, baita Itzurun aldera ere.

Patxita Etxezarreta eta Axular Ibiltokia

Badirudi aspaldi agindutako saihesbideko lanak datorren urtean hasiko direla (desjabetzeak hasita daude). Trafikoa bide berritik bideratzean, Patxita Etxezarreta kaletik eta Axular ibiltokitik pasatzen den auto kopurua gutxitu egingo da. Hori kontuan hartuta, errepidea estutu egingo da eta

espaloiak zabaldu. Bidearen alde batean aparkalekuak ere egokituko dira. Aurreproiektuan agertzen denez, Etxezarreta kalean 50 aparkaleku jarriko dira eta Axular ibiltokian beste 100. Biak batuta moilatik kenduko den kopuru berbera ematen du.

Autoek eramaten duten abiaduragatik eta espaloien zabalera

ALTZARIAK OSTOLAZA AROZTEGIA



Mota guztietako altzariak eta aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325



Kresala
Taberna

Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869



ANA
ESTREO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

(metro bat eskas) Zumaia tokirik arriskutsuenetakoa da Axular Ibilto-
kia. Bertan, zuhaitzak dituen pasea-
leku edo bulebar bat egitea da arki-
tektoen asmoa. Arestian esan bezala,
errepidea estutu egingo da (horrela,
autoen abiadura jaistea espero dute)
eta espaloiak zabaldu. Bidean aurkit-
zen den barrera arkitektoniko erral-
doia, Ortiz kontserbak, lekuz aldatu-
ko da hemendik urte batzuetara
(enpresa berria egiteko lanak dagoe-
neko hasiak dira ur araztegiaren
inguruan, Basusta aldean) eta horre-
kin Jadarre auzategiaren eta hirigu-
nearen arteko lotura estutu eta
erraztu nahi da. Jadarre eta Eusebio
Gurrutxaga enparantzaren artean
bidegorria ere egingo da.

Maria eta Jose ikastetxearen alboan
etxe ugari egin direla eta, Narrondo
ibaia zeharkatzeko zubi berri bat
egingo da Etxe Onako etxebizitzan
aurrean. Ayra Durexeko zubian,
berriz, aparkalekuak kendu eta espa-
loiak zabaldu egingo dira.

Aita Mari auzategia

Aita Mari auzategiaren sarreran ere
aldaketak egingo dira. Jone Kalzakor-
taren esanetan, "Arazo batzuk ditugu
hemen, jabekide batzuek etxabeetan
aparkatzen baitituzte autoak. Guk
pentsatzen dugu jendea hortik pasa-
tzeko eskubidea duela, nahiz eta
jabegoa pribatua izan". Onartzen

dute aparkatzeko arazo handiak dau-
dela auzategian eta bidearen bi alde-
etan aparkalekuak egitea proposatu
dute. Trafikoaren noranzkoa ere
aldatu egingo da: Aita Marira sartu
besterik ezingo da egin; irten, berriz,
Basadi, Alai edo Ayra Durexetik. Aita
Marin ere espaloiak zabalagoak egin
nahi dira eta aurreproiektuan irakur
daitekeenez, Aita Mari eta Gernika
parkea zuhaitzak dituen bulebar
batek lotuko ditu.

Bi zubien arteko pasagunea

Itsas Kiroldegiaren ondoan, bi zubik
Urola ibaia zeharkatzen dute. Hori-
tako bat (berriena) autoena da eta
horren azpian pasagunea egingo da.
Horrela, N-634 errepidea zeharkatze-
ko orain ez dauden erraztasunak
eman nahi dira. Halaber, orain utzi-
ta dagoen ibaiertza ere errekuera-
tu da. Harmaila batzuk jarriko dira
jendea ibaiaren ondoan lasai eserita
egon dadin.

Frontoi berria

Institutu alboan eraikiko da pilota-
leku berria. Egunen batean Marian-
ton kalea eta Txikierdi lotuko
dituen bulebar luzearen ardatzean
egongo dela diote arkitektoek. Fron-
toi luze honen jokalekuak neurri
hauek izango ditu: 54 metroko luze-
ra, 11 metroko zabalera eta 10
metroko garaiera. Edukierari dago-

kionez, 900 lagunentzat izango da.
Pilotaz gain, beste kirol jarduera
batzuk hartzeko instalazioak ere
izango omen ditu.

Oxford (Alondegia)

Alondegi zaharra guztiz eraberritzea
proposatzen du aurreproiektuak.
Erakusketa aretoak, ikus-entzunezko
eta hitzaldietarako gelak eta bilera
aretoak edukiko ditu kulturgune
honek. Erribera kalea eta Mari kalea
lotzeko igogailua ere egongo da,
baina eraikinaren barrutik, eta erabi-
lera Alondegiaren ordutegira muga-
tuta egongo da. Zerbitzu hau jende
askok eskatu duela azpimarratu du
Jone Kalzakortak. "Alondegia irekita
ez badago, ezingo dute erabili, baina
behintzat jakingo dute ordu batzue-
tan igogailua izango dutela", dio
arkitektoak.

Kalzakortak argi utzi nahi izan du
diru laguntza batzuk jasotzeko aur-
keztu duen proiektua besterik ez
dela. Izan ere, jendearekin hitz egin
beharko da eta adostu herritarrei zeri
iruditzen zaien.

2015 urtea jartzen dute egileek
muga bezala, eta arkitekto berak
dioen bezala, "Ikusi beharko da
asmoak burutzeko gai garen. Lanak
epeka egingo dira, Odieta eta Behe-
ko Plazakoak kenduta, beste guztiak
Udalak berak ordaindu beharko bai-
titu".



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

"Orduan politikak indar haundixa hartu zian. Guretzat PNV huan. Ez huan besterik"

ABELIN LINAZISORO

Jontxu, Xanti zapateroren semeetako bat da. Zaharrena, Xanti, batzokiko txislularia zena, gerran hil zuten eta bi arrebak ere, Pepita zaharrena eta Esther gazteena, hil ziren. Beraz, gaur egun bizirik geratzen direnak Jontxu eta Xabin dira. Guk, gerra ondorengo haurrok, oso gogoko genuen Jontxu, Luistarren zentroan igande arratsaldetan egiten zituzten antzerkietako barre eragiletako bat zelako. Bestea Axkate zen. Hamaika algara bota genuen bi pailazo hauen kontura! Jontxu zapataria izateaz gain, antzerkiko aktorea, txistularia eta koroko kantaria ere izan da eta oraindik da.

Mutil koxkorretako kontuez zer gogoratzen dek?

Jolasean asko ibiltzen gitxuan: Mando-mandoka, trenadioska, kanikaka, kukuka... billetekin ere bai. Obakoakin atifiatu eta billete tontorra bota behar izaten ginien. Obakoakin jo eta tontorra behera bota ezker: Danak neriak!, eta patrika dana billetez beteta! Billete bila estazixora juten gitxuan, han bilatzen ginitien: bidian, railetan, harri tartetan... Urolako estazixoko billeteki, Beheko Estazixoa, oso politak hitxuan, urdin-urdinak, baskongadotakoak, berriz, itsusixo, kartoi marroi kolorekoak, beste batzuek oso diferentziak hitxuan, jendiak bidian botatakoak hauek, bi raia gorri-gorri goitik behera izaten zien. Donostiko Norteko estazixokuak izango hitxuan seguruena.

"Billete bila estazixora juten gitxuan, han bilatzen ginitien: bidian, railetan, harri tartetan..."

Zuek koadrilan asko al zineten?

Mutil koxkorretan gutxi. Bost edo sei lagun.

Zenbat urterekin hasi hintzen lanean?



Hamahiru urtekin. Guk zapateixa ginien eta orduan Zunbillo kalian ginien denda.

Eta hamahiru urte bitartean non ibili hintzen eskolan?

Lehenbizi Tuntuxenean eta gero maristetan. Hamahiru urtekin irten nian eskolatik aittari zapateixan laguntzeko. Gure aittaren langileak Xabin anaixa eta biok gitxuan eta baita Benito eta Joxe Manuel Mante-rola bikixak ere.

Behin galtza luzeak jantzi ezkerok plazan dantzan neskekin hasi al hintzen ala hori geroko kontua izan zen?

Neskak atrebitu xamarra nintzala esaten zien. 13 urtekin dantzan sueltoan egin nian plazan eta maristak berehala jakin zien. Baina baltzian 17-18 urte arte ez gitxuan hasi. Gizon itxura hartu arte.

Zinera ere joango zineten, ba?

Bueno, nik aurrengo zinia apaizekin ezagutu nian. Mari kaleko lokalean zinea botatzen zien, mutua. Don Emilio huan teknikoa, zarauztar petoa, har manejatzen zian aparatua. Rin-Tin-Tin eta horrelako pelikulak.

Eta Amaya zinera?

Hori geroxeago. Pagatu ein behar izaten huan-eta. Eta beti ez ginien patrikan dirua izaten. Hotel Amayan sua ere izan huan. Akordatzen nauk nola eon ginan begira goiko alberga zaharretik. Ez zian halako

ondoren txarrik izan, baina bai, sua izan huan. Goialdian.

Mutil kokkorretan paga izango zenuten, ba?

Bai. Ez nauk akordatzen zer paga izaten gendun, baina zineak hiru perrotxiki balio zula bai. Geroago Maitena ireki zien eta orduan uste diat bi errial balio zula.

Zer urtetan jaio hintzen?

1921. urtekoa nauk. Errepublikan etorri zanean 10 urte nitian.

Hemen Zumaian batzokia ireki zeneko kontuez akordatzan al haiz?

Bai. Ondo. Xanti, gure anai zaharra txistularia huan. Primera jotzen zian hark, segundo Kepa Uranga huan eta danborroa Ander Estibar. Batzokiko txistulaiak. Hauen maixua Txori Txiki izan huan. Batzokia inauguratu zuteneko eguna, bezperatik izan huan gauza haundixa. Jende asko etorri huan kanpotik. Bilbotik etorritakoak ere bahitxuan. Bezperatik zeoan kriston moimentua. Bermio aldetik ere etorri hitxuan. Badakik bermiotarrak nola koak diran, bero-beroak. Haien gora Eskuadi eta haien dantzak! Donostitik ere etorri hitxuan. Orduan politikak indar haundixa hartu zian. Guretzat PNV huan. Ez huan besterik. Gero sortu hitxuan Euzko Indarra, Yagi-Yagi eta hauek.

Zer lan mota hartu zuen batzokiak bere gain?

Antzerkia, kantua, dantzariak... Joxe Etxabe huan buru. Hau artista haundixa huan. Antzerkian ona eta musikan oso ona. Antzerkia eiten Donos-

tixan zumaiarrak laugarren geatu gitxuan, konkurtsuan. Eta kantuan lehenbiziko premixua eman ziuken zumaiarrei. Joxe Etxabe huan zuzendaria. Batzokiko korua huan: Bixente Tximo, Angel Aperribai eta... bueno, kantore oso onak zibitian. Debatik Joxe Etxabek bajo bat ekarri zian, oso ona, eta Eibarretik ere bai, Txirloia-edo deitzen zixuena. Badakik, refuertzuak. "La voz del mar" eta "Nínive" kantatu zutela bazekiat. Eta... detaile bat esango diat:



“Hamahiru urterekin dantzan sueltoan egin nian plazan eta maristak berehala jakin zien.”

Zumaiarrei kantatzea tokatu eta koruak erten zunian, Joxe Etxabek atrilla barru aldera pixkat sartu omen zian eta bukatu zutenian lehengo lekura eramane. Konkurtsoa zumaiarrak irabazi zutenian, jende asko

haserratu ein huan, Etxabek ez zula atrilla moitu behar esanez. Zeatik ein zun hori? Ni mutil kokkorra nitxuan, baina seguruena, pentsatzen diat akustikatik izango zala.

Garai hartan antzerkian ibilia haiz, ezta?

Bai. Joxe Etxabekin. "Gau ostatua" izenekoa antzerkia ein ginien. Joxe Etxabek eramaten nitxuan batzokira antzerkixa preparatzera. Bixok bakar bakarrik jarri han, pake-pakian inor ez zeon garaixan, eta, entsaiatzera. Egutero arratsaldeko hiruretan edo lauretan. Nei negarra aterazitzen zian antzerki hark. Neu eiten eta neu negarrez. Drama eerra huan. Atera hitzak kontuak heuk: Gerra bukatu eta urte pila batera San Pedrotan Joxe Etxabe azaldu huan Zumaian. Frantziatik etorrita. Ni, Erreketeneko (Etxabe IV) mahaixan, patixoan nitxuan jarrita, Aizarna, gure lehengusu batekin. Halako batian: Aibadio! Zein azalduko eta... Joxe Etxabe! Jaiki,

berena jun eta: Zer moduz?, galdetu nitxuan. Ondo, Jontxu, ondo, hark. Eta nik, akordatzen al zea nola ein gendun "Gau ostatua" antzerkia?, esan nitxuan. Ixilik egon hadi, ixilik, -hark- bixok nahiko negar ein ginien. Eta hau egixa dek. Hark ere negar ein zian.

Zer antzerki mota zen, ba? Bi aktorek soilik osatutakoa ala...

Ez. Joxe Etxabe eta bixok aita-semeak gitxuan. Ni hamalau urteko semea. Pako jardinerroa asesinoa huan eta nire aitta etxean ez zeola aprobetxatuz, nei babesa eskatu zian eta nik eman... Drama oso eerra huan.

Batzokian euskarazko klaseak ere ematen ziren, ezta?

Bai. Euskeraz ikasteko eskolak. Beobidek ematen zitian. Iñaki Beobiden osabak. Telegrafista huan hau. Hark erakutsi zigun guri euskeraz irakurtzen eta idazten. Esaminak ere ein ginitien eta aurrenetakoak, Manolo Epelde, Jontxu Uranga, Jontxu Altzibar... bost geatu gitxuan. Zein zenbatgarren geatu ginan ez nauk akordatzan, baina bosgarrenak ere premixua bazula, bai.



Asko al zineten batzokiko eskolan?

Asko ez. Hamar-hamabi edo horrela. Edo igual gehixo. Ez nauk ondo akordatzan. Gero, klaseak aprobetxatuz, kantatzen ere erakutsi ziutean: Aldi baten geure Ama, Aberri maitagarria... bizkaitarra zian letra. Sabino Aranak jarritakoa. Hantxe ikasi nian baita ere: Urrundik ikusten dut, ikusten mendia, beraren gibelean baitut nik herria... Eta kanta gehixo ere bai.

Batzokiko kantaria al hintzen?

Kantaria bai, baina ez batzokikoa.

*“Antzerkia, kantua,
dantzariak... Joxe
Etxabe huan buru.
Hau artista haundixa
huan. Antzerkian ona
eta musikan oso ona”*

Parrokixan triplea. Joxe Etxabe huan zuzendaria eta Don Emilio organista. Aste Santuan kanta eerrak kantatzen ginitien. Bajoak, baritonoak, tenorrak eta gu tripleak. Kuerda bakoitzean 10 izango gitxuan, edo, beharbada gu tripleak gehixo.

Gerra piztu zeneko zerbait akordatzan al haiz?

Nik orduan hamabost urte nitian. Gerra sortu zanean berrixak tantaka etortzen hitxuan: Naparroan zer ein

CROISSANTERIA
pizzak
hanburgesak
bokatak...
marina
Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

Rosi
garbiketak
* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa
Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona
burdindegia
Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

SOLOZABAL AUTOESKOLA
- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak
P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxe: 943 861416
gidatzeko baimen guztiak

ALBAITARITZA KLINIKA
BASADI
MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-
astelenetik ostegunera 16:00-19:00
ostiralak 11:30-19:00
larunbatak itxita
aldeaz aurretik deitu
Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508
Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

zituzten, reketek hauek jende asko garbitu zutela... Komunikazixua ez zeoan oain bezela. Molan ejerzitoa igual Hernanin eta gu enteratu ere ez. Akordatzen nauk egun batean, Hotel Zumaya aurreko plazan, (orain Errota okindegia eta 7 Mares-ko aurrean) petrilean jarrita musikuak zeudela, gure anaixa Xanti tartean. Bat jun dek gure anaixena eta esan zio: Hi, Xanti, ejerzitoa Irunen sartu omen dek, eta Xantik: Bai, zeal, hori ez dek egixa izango! Ba, hori, jakin, ia ez ginien ezer jakiten. Herrian sartzeko zianian, bai. Aurretik Zumaitik jende askok ospa ein zian. Beste herrietan gertatu zen bezelaxe. Geroago etorriko huan familia osoak herritik kamioetan kanpora bialtzea. Kamioietan, hi. Gure aitta estomagotik beti gaixki ibili huan eta gure itxian ere maletak, mantak eta dana preparatua zeoan, gu ere herritik bialtzeoak gitxuan-



eta. Eta denda zenei laga behar dixeu?, esaten nitxuan aittari. Ibentaxua egin ginien, lehengusu baten izenean jarri dana eta hark zaitu behar zian denda gu kanpoan ginan bitartean. Gure aitta honek, ordea, azkene-ko ahalegina egin nahi izan zian. Ze, gure anaixa Xanti Bizkaira alde egin-

“Komunikazixua ez zeoan oain bezela. Molan ejerzitoa igual Hernanin eta gu enteratu ere ez.”

da zeoan. Eta hara jun baino lehen hemene Gipuzkoan ere ibili huan gudari, boluntaixo. Loiolan gudarostea zeoan eta han eon hitxuan, ba datozela eta ez datoze-la, ahal zuten armekin, eskopetakin ere ibili hitxuan. Kepa eta Hilario eta hauei, nola tiplak izan zian, Don Emiliok deitu ein ziuene jakiteko zer asmo zuten. Hauek, guk aurrera jun behar degu. Aurrera zoaz-tela?, zeatik?, Don Emiliok. Erabakia partiduak hartu du eta gu aurrera goaz, Kepak. Izugarritzko pena hartu zien apaiz danak. Tipleak izan ziala-ko oso maitiak zitien-eta.

jarraituko du...

Leikin
Zabalkideta, S.L.

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

DIGITAL +

ongizan
fisioterapia zentroa
igor agirre eta idoia uranga

Tel./Fax: 943 53 53 05 • e-mail ongizan@euskainet.net
Itzurun Zuhaitz-bidea 3-behea • 20750 Zumaiak (Gipuzkoa)

Arpaia
Zabalkideta

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

joxe manuel balenziaga masajista

"Egindako lanaren ondorioz, finkatutako helburu bat lortu duela ikustea oso pozgarria da"

Oier Aizpuruak munduko maratoi txapelketa irabazi zuenean klubari eta bereziki bere masajista eta psikologo den

Joxe Manuel Balenziagari eskaini zion garaipena.

MAITANE AGIRRE

Joxe Manuel Balenziaga piraguisten masajistarekin egon gara eta bere lanbidez eta Oierren sariaz hitz egin dugu

Zenbat urte daramatzazu masajista lanetan?

Masajista 93. urtetik, baina piragua-ko entrenatzaile 84an hasi nintzen. 18 urterekin Madrileran joan nintzen monitore titulua ateratzera eta handik itzuli nintzenean klubeko entrenadore nintzen.

Beraz, zer zara klubeko masajista-entrenatzaile-psikologo?

Urte batzuk lagata egon naiz, baina klubean egon naizenean denetik egin dut pixka bat, ahal den neurrian laguntzea beharrezkoa da eta.

Oier pixkanaka irabazle bihurtzen ikusi duzu. Nola bizi izan duzu?

Poza ematen du, beti entrenatu delako gurekin, alebin eta infantiletatik, eta noraino iritsi den ikusteak poza ematen du. Egindako lanaren ondorioz finkatutako helburu bat lortu duela ikustea oso pozgarria da, eta are gehiago maila horretan. Nahiko harrigarria da, gainera, herri txiki batean horrelako maila lortzea,

baina horretarako berak eta ingurukoek badakigu zer nolako entrenamenduak egin behar izan dituen.

Azkeneko sari hau zuri eskainia zizun...

Niri, klubekoei, esponsorari..., baina nik uste momenturik txarrenak eta onenak bere familiakoek bizi izan dituztela. Guk ahal duguna egin dugu eta ahal dugun neurrian laguntzen diogu entrenamenduetan... Baina oso pozgarria izan da, dudarik gabe, gurekin gogoratu dela ikustea.

Eta zer sentitu duzue?

Poz izugarria. Barrutik ezagutzen dugu zenbat esfortzu egin duen, zenbat kezka, zenbat ordu entrenatu dituen, zenbat gauzari egin dion uko. Barrutik ikusten da zenbat ordu sartu behar diren eta zenbat esfortzu egin behar den horrelako maila lortzeko, baina balorazioa oso ezberdina da kanpotik ikusita.

Batzuetan goi mailara iristen diren kirolariak berekoiak izaten dira, baina Oier beti egon da prest klubari laguntzeko eta selekzioarekin egon denean ere beti man-



“Egindako lanaren ondorioz finkatutako helburu bat lortu duela ikustea oso pozgarria da, eta are gehiago maila honetan”

tendu ditu lagunak, eta ahal duen guztietan etorri da klubera bertakoei laguntzera eta bertakoekin entrenatzera. Horrek poztu egiten zaitu, ikusten da lortu duena bere lanaren arabera izan dela eta oztopo ugari gainditu behar izan ditu lortu duena lortzeko.

Orain, noski, kanpokoek baloraztea falta da. Badirudi pixkanaka ematen ari zaiola garrantzi pixka bat, baina orain arte Oierrek maila ikaragarri ona lortu du eta ez zaio nahikoa garrantzi eman. Hiru mundial irabazi ditu dagoeneko, piraguetan egiten den proba azkarrena eta luzeena; beraz, erakutsi digu zertarako gai den. Gainera, lanerako gaitasuna duela ere erakutsi digu, kalitatea lortzeko lanerako gaitasuna eta profesionaltasuna ere behar baita. Kanpotik ez da behar adina baloratzen egindako esfortzua eta lortutako maila; gainera, honelako herri txiki batean eta baliabide urriekin... Askot

tan kirolari bakoitzak gehiago baloratzen du, bakoitzak dakielako zenbat ordu sartu behar izan dituen hori lortzeko. Beraz, kanpoko balorazioa falta dela esango nuke, ez da-eta estimatzen egindako esfortzua.

Itxas-Gain elkarteko masajista zara. Zure lana garrantzitsua izango da klubean, ezta?

Bai, nolabait muskuluak deskargatzen eta entrenamendu bolumenak handiak direnean karga horiek arintzen laguntzen dugu. Bestetik, lesioak sortzen direnean ahal den azkarrena sendatzen saiatzen gara, betiere beharrezko tratamendua jarriz, ondoren entrenamenduak egiten jarraitu ahal izateko ahal den eta azkarren, maila gorenetan ez baita komeni denbora askorik galtzerik.

Lan fisikoa handia denean eta karre-
rak luzeak direnean, gorputzak esfortzua asimilatzen du, baina kanpotik ere laguntza behar da, luzatzea askotan ez baita nahikoa. Horregatik, tratamenduak behar dira entrenamenduak asimilatzeko eta muskuluak ez blokeatzeko... Baina hori guztia entrenamendu bolumenaren arabera da.

Inoiz sentitu al duzu huts egin duzula, kirolari bat zuregana joan eta ezer egin ezin dela ikusita?

Noski, lesio handiek denbora behar

dute sendatzeko eta askotan kirolariak denboraz oso justu ibiltzen dira. Azkar sendatzea nahi izaten dute entrenatzen jarraitu ahal izateko eta emaitza onak lortzeko, baina bakoitzak bere denbora behar izaten du. Nolabait esateko, entrenamenduak bezala da, hau da, entrenatu ondoren emaitza txarrak lortuz gero, betikoa izaten da gaizki zer egin den edo zertan egin den huts pentsatzea. Kirol asko bezala da gure lana, batzuetan lan asko egiten da, baina emaitzak ez dira nahi bezalakoak izaten.

Oierren mailan presioa izugarria da eta horrek ez du uzten nolabait lesioa erabat sendatzen, ez baitago denborarik deskantsatzeko. Hori dena kontuan hartuta, familiakoek eta ingurukoek baloratzen dugu Oierrek egindako lana.

Itxas-Gain elkartean egiten duzuen lana estimatzen dela uste al duzu?

Baia, hala uste dut, herriak lagundu du; izan ere, udan egin zen Urolaren igoera jaitsiera bezalako proba bat prestatzeko ezinbestekoa izan zen herriaren laguntza. Horregatik, jendea animatzen dugu piraguetan ibiltzera eta klubak nola funtzionatzen duen ikustera, Itxas-Gain jendearentzat ere irekita baitago. Lehiatzeaz gain, garrantzitsua da jendea irakustea.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



jon maia bertsolaria

Markinan, azaroaren 12an izango da Jon Maia bertso txapelketa nagusiko finalerdietan. Bere laugarren txapelketa izango da aurtengoa. Txapelketa nagusiaren inguruan eta esku artean dituen proiektuez aritu da solasean.



"Jendeak gogoratuko duen zerbait ustea da nire asmoa"

ITSASO IBARRA

Durangoko Azokan aurkeztu nahi duen liburuan buru-belarri sartuta zegoen Jon. Hala ere galdera batzuk erantzuteko tartea aurkitu zuen.

Hasi dira jada Bertso Txapelketa Nagusiko kanporaketak. Zeu nola zabilta prestatzen?

Bertso eskolakoek lanak jartzen dizkirate, batez ere, txapelketako ariketak bereziak direnak. Batzuk plazetan ez ditugu asko egiten, esaterako, txapelketan 6 puntu txikiko neurrian abestu behar dugu eta hori lantzen nabil. Ariketa bakoitzak badu bere gakoa eta gure entrenamendua ez da izaten bertso onak botatzea, baizik eta ariketa bakoitzean zer egin behar den antzematea. Bestetik, betiko entrenamenduak, errimak berritzea eta kontzentratzen hastea.

Zein da txapelketan duzun helburua?

Lehen helburua finalean sartzea, behin hori lortzen badut ikusiko dut beste helbururik lor dezakedan.

Nola ikusten duzu helburu hori lortzea?

Aurrekoetan baino zailagoa da aurtengoa, jende gehiago ikusten dut gai finalean sartzeko. Hamar bat edo bagaude sei lekutarako eta norbaitek kanpoan geratu beharko du. Gainera, bertsoak beti du misterioa; ez dakizu nolakoa den. Ez da txirindulariak bezala, hilabete batean sendo egoteko prestatzen dira. Entrenamenduak egiten dituzte data batean indartsu egoteko; muskuluekin kalkulatu daiteke baina buruarekin oso zaila da hilabete lehenago jakitea nola egongo zaren. Gauza askok eragiten baitizute burua ez da gauza zehatza eta inork ez dauka bere burua kontrolatua.



“Txapelketarako
hautagai gehiago
daude Maialen
Lujanbio eta Andoni
Egaña baino”

uste dut ondo ibiliko
naizela. Ia lortzen
dudan presioak kendu
eta gozatzea. Ahal
denik eta dotoreen
egin behar da eta ez da
plaza bateko bertsokera
bera. Zenbat dakizun
erakustera joan behar

duzu, eta plazan ez duzu kezka hori. Txapelketan bi saio-
tan erakutsi behar duzu egiten dakizun dena, eta horretara-
rako beste modu batera abestu behar duzu.

Guztien ahotan dabilta Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio.

Bi horiek demostratu dute zer egin dezaketen. Andoni ziur aski sekula egon den bertsolaririk onena izango da. Maialenek ere erakutsi du ze maila eman dezakeen. Nik uste dut ez dagoela tarte handirik hor gaudenon artean eta finaletik egun batera ia edozer gerta daiteke. Txapele-
rako hautagai gehiago daude bi horiek baino.

Aurten finala Donostiatik Bilbora.

Arraroa da leku aldaketagatik. 100 urtean Donostian egin da eta Belodromoa bertsorearen katedrala zen. Ez zen esaten, finalean abestuko dut, baizik belodromoan abestuko dut. Oso lotua egon da finala eta belodromoa. Guretzat ordea, ez da hain arraroa Bilbora joatea; izan ere, urtean zehar saio gehienak Bilbo inguruan egiten ditugu. Guretzat oso naturala da han abestea. Bestetik ondo etorriko da elkarte inertziatik irteteko. Erronka modukoa da hura betetzea eta horrek beti astintzen du mundu hau. Jendea mobilizatu egin behar da eta polita izan daiteke.

Bilbao Exhibition Centerreara...

Izenak ez dit graziaz egiten, ez da naturala horrelako izena duen leku batean abestea baina, azkenean horren gainera egon behar da. Txirringularitzako pista batean abestea ere ez da normalena. Gipuzkoarrek ere ikasi behar dute kanpora irteten, oso ohituta gaude gipuzkoar zentralismo horretara; uste dugu hau dela euskal munduaren zailborra eta naturaltasunez hartu behar da beste lekuetara joatea.

Bertsotan aritzeaz gain, abeslari, abestiak egiten dituzu, idatzi... Zein da zure lana?

Ez daukat lan jakin bat. Bertsolaria naiz eta horrek ematen dit beste gauza batzutan jarduteko aukera. Enbor horretara

Zuretzako laugarren txapelketa izango da. Aurrez bi bider egon zara finalean.

Azkeneko txapelketan zapore txarrarekin amaitu nuen, finalean laugarren geratu nintzen baina bertsotan ez nuen batere gozatu. Uste dut ez nuela aparteko bertsorik bota eta nahiz eta postu ona lortu, hori ez da garrantzitsuena, jendeak gogoratuko duen zerbait ustea da politena. Aurten hori da nire asmoa.

Nola lor daiteke hori?

Beste txapelketan prestaketarekin itsututa joan nintzen eta azkenean, bertso batean hainbeste gauza egin nahi dituzu eta ez diozu bertsoari bere kasa etortzen usten. Errima jakin bat sartu nahi duzu, pentsatutako estrategia... Gehiegi obsesionatu nintzen etxeko lanekin eta aurten freskoago edo solteago noa, hainbeste itsutu gabe; bertsotan egitera urtean egiten dudana bezala. Ahal dela finago, prestatuago edo kontzentratuago, baina urtean zehar egiten dudana egin nahi dut eta hala egiten badut

tik ateratzen diren adarrak dira besteak. Baina azkenean hitza da nire lantresna, eta hitzarekin edozein gauzetan jarduten naiz. Betidanik idatzi izan dut prentsan, irratian ere kolaborazioak egin ditut, abestien letrak, liburu bat idazten ari naiz... Bertsotan izen bat lortzeak zabaldu dizkit ate horiek. Bertsolariak hizkuntzarekin jolasten du eta hizkuntzarekin egiten du lan eta horretan espezializatzen zara, hizkuntzan eta sorkuntzan. Bi gauza horiek bat egiten duten jardueretan naturaltasun handiz ibiltzen naiz.

Bertso eskolako irakasle ere bazara. Nola ikusten duzu herriko bertsolaritzaren etorkizuna?

Maila handia duten ikasleek daude eta gainera bertso giroa eta bertsotan jardutea gustatu egiten zaie eta hori da adin horretan garrantzitsua. Zumaia ez da izan herri bertsozalea eta 25 urtetan egindako lanak lortu du hemen bertso zalego bat egotea. Kalean zaletasuna egotea da ederra, eta badago.



Eleberri bat idazten ari zarela diozu, zeri buruz?

Familia etorkin baten istorioa da; Espainiatik etortzen den familia bat eta beraiek etorri zirenean nola sentitu ziren

FINAL AURREKOAK

Markina-Xemein
Azaroak 12, larunbata
Arratsaldeko 6etan, udal
pilotalekuan


Bertsolariak
Aitor Sarriegi
Amets Arzallus
Arkaitz Estiballes
Igor Elortza
Jon Maia
Xabier Paia

Aurkezlea
Bernardo Mandaluniz

Bera
Azaroak 27, larunbata
Arratsaldeko 5etan,
Eztegara pilotalekua

Bertsolariak
Amets Arzallus
Etxahun Lekue
Fredri Paia
Iñigo Manzisidor "Mantxi"
Jon Maia
Sustrai Colina

Aurkezlea
Zuriñe Iarritu



Finala abenduaren 18an izango da Barakaldoko BEC erakustazokan. Sarrerak turismo bulegoan egongo dira salgai.

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

**BEDUA
ITURGINTZA S.L.**
ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

azaltzen dut. Erdaldunen begietatik ikusitako Euskal Herria erakutsi nahi dut.

Taldeentzako abestiak ere egiten dituzu.

Kantak beti dira enkarguak, batzutan musika dute bestee-
tan letra nahi izaten dute lehendabizi. Badira 15 urte lan
honetan hasi nintzela, eta polita da zure letrak musikare-
kin entzutea eta jendeak batzuk ikasten dituela ikustea.

Benito Lertxundiren azken diskoko, Itsasoari begira abestia ere zeuk egin da.

Harremana daukagu bi urtetik hona eta hortik sortu zen
kantu hori. Ia zerbait banuen galdetu eta nik neuzkan
letrak utzi nizkion eta hortik hartu zuen. Niretzako poz
handia da eta ez nuke pentsatuko sekula nik idatzitako
ezer kantatuko zuenik Benito Lertxundik. Umetatik
entzun izan dut Benito eta niretzako oso berezia da berak
nire letrak abestea.

Karidadeko Bentaren bi disko kalean, hurrengo noiz- ko?

Bi diskoak ondo saldu dira, kontzertuetara jendea etor-
tzen da eta baditugu jarraitzaileak; jendeak abestiak bada-

"Umetatik entzun
izan dut Benito eta
niretzako oso
berezia da berak
nire letrak
abestea"

kizki eta atsegina da
arrasto bat utzi duzula
ikustea. Datorren urtean
hasiko gara hirugarrena
lantzen. Baditugu musi-
ka berriak. Hala ere,
antza izango du instru-
mentuak berberak dira
eta horrek musika bere-
ra eramaten gaitu, alda-

tuko da baina aire bera jarraituko du.

Garai batean, herrian kafe antzoki moduko baten beha- rra azpimarratu zenuen.

Herriaren neurriko lokala, dinamika kulturala piztuko
duena eta urtean zehar eskaintza kulturala eskaini deza-
keen leku independentea behar da. Tristea da kultur dina-
mika dena udaletxe baten kargu egotea. Horrek garbi era-
kusten du herritarren aldetik ez dagoela iniziatibarik.
Zumaiak leku bat behar du Euskal Herriaren dinamika
kultural horren barne egon gaitezen. Horrek gazteak giro
horretara hurbiltzea dakar, zerbait egin nahi duenaren-
tzat leku bat.

Harpidetza kobraketa

bultzatu hitza

proiektua sendotzeko



52 euro ordainduz gero, zerbitzu osoa emango dizu:

- ▶ Urola Kostako albisteekin egunero 8 orrialde, euskaraz
- ▶ Kalitateko egunkaria
- ▶ Etxean jasoko duzu
- ▶ Zozketak, promozio sariak, deskontuak gerera...

Villa Pilar, Luis Aladren

ISMAEL MANTEROLA

1891an Luis Aladren arkitektoak Amabirjina Bista izeneko tokiaren azpian terrenoa erosi zien Ubillos dorretzeko hurrengoei udako etxea eraikitzeko asmoarekin. Horrela, herriko sarreran "Villa Pilar" izeneko udaldiak pasatzeko lehenetariko etxea eraiki zuen hurrengo urtean seguru asko.

Luis Aladren Donostiako Kasinoa (gaur egungo Udaletxea), Bilboko Diputazioa eta Donostiako eta Zarauzko udako jauregien arkitektoa zen. Ramona Gurrutxaga zumaiarrekin ezkondu zegoen, Gurrutxaga famatuaren alabarekin alegia, eta horregatik uda pasatzeko etxebizitza eraikitzearen arrazoia. Baina Aladrenek erosi zuen terrenoa ez zen etxe bat eraikitzeko egokiena mendi maldan zegoelako eta horregatik harrizko oinarri handia egin behar izan zion etxe estua eraikitzeko.



Garai hartara arte, udako etxebizitzak jauregien eredu jarraitzen zuten, eta orokorrean jauregi txikien antza izaten zuten. Aladren eta garaiko beste arkitektoei zor zaie "txaletaren" tipoa asmatzea. Zarautzen markes batzuentzat eraiki zuen jauregiaren

bertsio txikia den "Villa Pilarren", Alemania, Suitza edo Austriako mendialdeko arkitektura tradizionalaren elementuak erabili zituen, udako etxearen eredu berria sortzeko: arbelezko teilatua, egurrezko habeak eta zutabeak imitatzen dituzten elementu gorriak fatxadan, harria beheko solairuan, pertsiana haundiak leihoetan, e.a. Erdi etxe "rustikoa", erdi jauregitxoa den etxebizitza lortu zuen Aladrenek tipologia horren bitartez, uda pasatzeko etxe batek behar zuena, alaia, baina serioa, herrikoia eta noblea aldi berean.

Eraikinaren eragina nabarmena da Luis Peña Gantxegi arkitektoak 60ko hamarkadan eraiki zuen Maria eta Jose eskolan, Aladrenek erabilitako arbelezko teilak eta kolore granateak erabili baitzituen berak ere urte egon behar zuen ikastetxean.

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

ert
informatika

tresna digi
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95



Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



ZINE FORUM

azaroak 17, osteguna, gaueko 10:15ean

Perder es cuestión de método**Zuzendaria:** Sergio Cabrera **Aktoreak:** Daniel Giménez Cacho, Martina García

"Con *Perder es cuestión de método* he podido regresar al cine urbano, a Bogotá, que con sus paisajes de cemento sirve de marco a un fresco de esa ciudad que sospechamos pero no conocemos y de los sugestivos individuos que la habitan, que no pueden evitar ser simpáticos, a pesar de ser perversos."



Sergio Cabrera zuzendariaren hitzak dira. Sei urte luzez zinema egin gabe egon ondoren, bere jaioterrira, Kolonbiara, itzuli da, Latinoamerikako estatu horrek jasaten duen ustelkeria itzela salatzeri. Kazetari batzuk dira pelikulako protagonistak: Silampa eta Estupiñan. Bogotako laku baten ertzean gorpu bat agertzen denean, albistea ikertzeko enkargua hartuko dute. Quica izeneko prostituta batek lagunduta, korapiloa askatzen joango dira hirigintza-espekulazio trama erraldoi batekin topo egiten duten arte.

Santiago Gamboak idatzitako eleberri poliziako batean oinarritu da Cabrera ustelkeriaren salaketa hau egiteko. Gaia oso serioa izanda ere, umoreak badu bere lekua, zuzendariak dioen bezala, pertsonaiek ezin baitiote utzi sinpatikoak izateari. Politikari eta enpresaburu ustelek, prostitutek, esmeralderoek, naturismoaren zaleek eta era guztietako kazetariak osatzen dute pertsonaien mosaikoa. Atzean, zelatan, Bogotako hiria.

abenduak 1, osteguna, gaueko 10:15ean

Nadie sabe**Zuzendaria:** Hirokazu Kore-Eda **Aktoreak:** Yuya Yagira, Ayu Kitaura

Hirokazu Kore-Eda zinemagilearen apustua liluragarria bezain arriskatua da, batez ere istorio guztia lau haur protagonisten naturaltasunean oinarrituta dagoelako.



Ez da oso ohikoa hainbesteko emoziozko berotasunetik kontaktzea istorioa, baina Kore-Edak ederki lortzen du: puntillismo dotore baten ikuspegitik, lau anai-arrebaren eguneroko kronika erakutsiko digu, erabat utziak, amak inoiz ez baitu nahi izan bereganatu ama-papera. Protagonista txikiek bizirauten ikasi beharko dute eta horretarako jokabide klandestinoak hartu. Horiei esker etxebizitza txikitik irten eta eskolara joan ahal izango dira.

Zuzendariak txukun-txukun marrazten du lau umeek bizi duten jolas eta irribarreen eldarniozko mundua. Ama falta dela berenganatzen dute, baina amorruz betetako distantziatik, eta hori xehetasun txiki batzuen bidez erakusten zaigu, xehadura praktikoa bezain eraginkorren bidez.

Asmoei dagokienez, beste pelikula bikain baten antzekoa da: Jack Clayton-en *A las nueve cada noche*-rena. Pelikulan bata bestearen atzetik datoz etengabe samurtasuna eta mingostasuna, eta ikuslea harrapatuta geratzen da. Lau bizi alderrai hauen tragediak ez du baliabide pobrerik, eta horrek asko adierazten du, istorioa ez baitzen batera erraza.

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

agenda

ANTZERKIA

Abenduaren 2a
22.00etan KANPINGAGS "Shakespeare Osoa"

Abenduaren 16a
22.00etan GLU GLU "Todos nacemos vascos"

Abenduaren 18a Haur antzerkia
12:00etan HIRU TXERRIKUMEAK

ERAKUSKETAK

Azaroaren 25etik abenduaren 11ra
"Genero indarkeriaren aurka"

Abenduaren 16tik 18ra

"Bidezko merkataritza azoka"

Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra

Forondako Bainika tailerrekoen lanak.

DEIALDIAK

ZUMAIKO VII ESKAPARATE LEHIAKETA

Eskaparateak prest egon beharko dute abenduaren 9tik 30era bitartean. Izenematea Kultur etxean eta Turismo Bulegoan, abenduaren 7a baino lehen. (943.861056 foronda@zumaia.net / 943-143396 turismoa@zumaia.net)

IV. KLARINETE MARATOIA : data berriak, abenduaren 20tik 23ra.

AZAROA

17. osteguna

17:30ean Ipuin kontaketa Haur

liburutegian "Kandelaren argipean"

taldearen esku

22:15ean Aita Mari aretoan, zine forum saioa "Perder es cuestión de método"

19. larunbata

Arratsalde-iluntzean Udal Musika Bandaren Santa Zezilia ospakizunak

20. igandea

12.00etan Aita Mari aretoan, haurrentzat opera saioa "Hansel eta Grettel"

22. asteartea Santa Zezilia, Musikoen eguna: herriko musika taldeen kalejira eta ekitaldiak.

27. igandea Santa Zezilia ospatuz, San Pedro Abesbatzak Meza Nagusi abestua.



Opera saioa

Azaroaren 28an Mozarten "Don Giovanni" opera antzetzuko da Bilboko Euskalduna jauregian. Zumaia-ko autobusa izango da. Sarrerak salgai daude Foronda kultur etxean.

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maitte
ileapaindegia



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



taberna

Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083

S DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel: 943 86 20 51



Sukalderako hornikuntza diseinuak

Lanen zuzendaritza

Edozein sukaldetara moldaturiko diseinu bereziak

Kalitate-prezioan parekorik ez

www.dornutegi.com

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60